



2024ko SAN BARTOLOME JAIETAKO PROGRAMAREN AZALA **AUKERATZEKO LEHIAKETA - ELGOIBAR**

Elgoibarko Udalaren Kultura Sailak lehiaketa antolatu du 2024ko San Bartolome Jaietako programaren azala aukeratzeko.

OINARRIAK

LEHENENGOA.- Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

BIGARRENA.- Teknika libre izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira. Lanen neurria honako hau izango da: 225 mm x 225 mm neurrikoa edo proportzionala, 300 puntu hazbeteko bereizmena duena.

HIRUGARRENA.- Egile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta lanak argitaratu gabeak izango dira. Ezin da aurretik aurkeztutako lanekin parte hartu.

LAUGARRENA.- Ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea:

“ELGOIBAR, SAN BARTOLOME JAIK 2024”

BOSGARRENA.- ZORTZIREHUN EUROKO (800 €) sari bakarra izango da.

SEIGARRENA.- Lanak Aita Agirre kulturagunean aurkeztu behar dira. Lanak aurkezteko epea **2024ko EKAINAREN 21ean**, eguerdiko 13:00etan bukatuko da.

Aita Agirre kulturagunea
Aita Agirre plaza, 3-1.ezk
20870-Elgoibar

ZAZPIGARRENA.- Lanak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira, atzeko aldean “leloa” jarrita. Honekin batera, kartazal itxi batean, parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NANaren kopia bidaliko dira, eta kartazalaren gainean, lanaren “leloa” jarriko da.

ZORTZIGARRENA.- Saritu gabeko lanak epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren jaso ahal izango dira. Horretarako, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epea izango da. Lanak aipatutako epean jaso ezean, Udalak uste izango du egileak horiei uko egiten diela. Ondorioz, egileari inolako eskubiderik aitortu eta ordainik eman gabe, egoki irizten dion moduan erabiliko ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Saritutako lana euskarri informatikoan eman beharko zaie antolatzaileei, baldin eta formatu horretan eginda badago. Lana, bestalde, Udalaren jabetzapean geratuko da.

HAMARGARRENA.- Saritutako lanak Udalaren esku geldituko dira. Udalak, halaber, lan horiek inprimatzeko, argitaratzeko eta ezagutarazteko eskubidea izango du, baita gainerako eskubide guztiak ere.

HAMAIKAGARRENA.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Erabakia hartzen den egun berean jakingo da epaimahaia nork osatzen duen. Epaimahaian emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekatua izango dela bermatuko da. Horretaz gain, epaimahaiak argituko ditu oinarri hauei buruz sor daitezkeen zalantzak.

HAMABIGARRENA.- Lehiaketara aurkezteko, guztiz onartu beharko dira lehiaketa arautzen duten oinarriak.

HAMAHIRUGARRENA.- Generoa irudikatzeko erabiltzen diren irudietan oreka bete beharko da, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria saihestuz.